
ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA EGITEKO JARRAIBIDEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA EGITEKO JARRAIBIDEAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2024


Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
<<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>>.

Argitaraldia:	1.a, 2024ko martxo
Ale-kopurua:	310 ale
Internet:	www.euskadi.eus
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
Azala eta maketazioa:	Printhus, S.L.
Inprimatzailea:	Printhus, S.L.
ISBN:	978-84-457-3744-6
L.G.:	LG G 91-2024

Aurkibidea

0.	SARRERA	5
1.	EBALUAZIOAREN HELBURUAK, ETA EBALUATU BEHARREKO PLANAK ETA PROIEKTUAK	7
2.	ELE APLIKAZIOA	9
3.	IRISMEN DOKUMENTUA	11
3.1.	Zer da irismen-dokumentua?	12
3.2.	Irismen-dokumentuari buruzko lege-aipamena	12
3.3.	Indizeen definizioak:	12
3.4.	Datuak eta galdetegi laburra	13
3.5.	Biztanleak eta bisitariak kalkulatzeko kontuan hartzekoak	13
3.6.	Irismen dokumentu eredua	14
4.	HIZKUNTZA-INPAKTUAREN AZTERLANA	17
4.1.	Zer da hizkuntza-inpaktuaren azterlana?	18
4.2.	Hizkuntza-inpaktuaren azterlanari buruzko lege-aipamena	18
4.5.	Funtsezko alderdien galdetegiari buruzko argibideak	22
4.6.	Neurri zuzentzaileak	24
5.	ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTENA	25
5.1.	Zer da Eragin Linguistikoaren Ebaluazioari buruzko Txostena?	26
5.2.	Eragin Linguistikoaren Ebaluazioari buruzko lege-aipamena	26
5.3.	Txostena egiteko eskema proposamena	26
6.	SUSTAPEN NEURRIAK	29
7.	ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA EGITEKO PROZEDURA	31
7.1.	Hirigintza planen prozeduraren barruan ELE noiz txertatu	35
8.	ERANSKINAK	37

8.1. Intentsitatearen balioak	38
8.2. Hizkuntza inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko galdetegia	39
8.3. Funtsezko alderdien galdetegia	43
8.4. Erabiltzailearen eskuliburua (EJIE)	56



O.

SARRERA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) zer den azaltzeko eta berau garatzeko metodologia aurkezteko jarraibideak argitaratu zituen 2019an, toki-erakundeei eskainitako ELEri buruzko prestakuntzan oinarri gisa erabiltzeko asmoz.

Eskuarteetan dituzun jarraibideak aurreko horien eguneraketa dira; izan ere, 2019ko azaroan Euskadiko Toki Erakundeen Legea (2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) garatzen duen dekretua indarrean sartu da, beste gai batzuekin batera, planen eta proiektuen hizkuntza-inpaktua ebaluatzeko prozesua arautzen duena: 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeen hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.

Seigarren kapituluak, planen eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa lantzen da, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 7. artikuluko 7. apartatua garatzeko. Tresna horren bidez, dekretu honetako 50. artikuluan aipatzen diren udal-eskumeneko planek eta proiektuek euskararen erabileran izan dezaketen inpaktua aztertu eta ebaluatu nahi da. Horrek aukera ematen du balizko hizkuntza-inpaktuari aurrea hartzeko eta hura zuzentzeko neurriak proposatzeko, gerta litezkeen inpaktu kaltegarriak saihesteko edo minimizatzeko, bai eta kasu bakoitzean egoera bideratzeko irtenbiderik egokiena bilatzeko ere. Helburua aukerarik onena baliatzea da, plan edo proiektu bakoitzak hizkuntzen erabileraren normalizazioan izan ditzakeen ondorioak aztertuta. Horretarako, planen eta proiektuen onarpenean hizkuntza ikuspegia txertatzeko beharra ezarri da. Ikuspegi hori, bada, garapenaren eta diseinuaren hasierako faseetatik hartu beharko da kontuan.


Eragin Linguistikoaren Ebaluazioak izaera irekia dauka. Izaera hori arrazoizkoa da, bai administrazio-jardueraren sinplifikazio-printzipioaren ikuspegitik bai hizkuntza-politikako tresna gisa izan behar duen efikaziagatik. Gai honetan ere udal bakoitzari tarte zabala ematen zaio, hizkuntza-normalizazioaren arloko erantzukizuna hoberen irizten dion moduan gauzatu dezan, baina beti gutxieneko irizpide batzuk betez. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioak udalei aukera aski handia ematen die egoera malgutasunez aztertu eta baloratzeko, halako eran non sistema malgu bat eskaintzen baitzaie udalei, planifikatzeko eta programatzeko garaian hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren abantailez baliu daitezkeen.

Kapitulu hau proportzionaltasunaren printzipioan datza, hau da, planen eta proiektuen balizko hizkuntza-inpaktua nolakoa den, halakoa izango da ebaluazioaren indarra. Hortaz, zer plan eta proiektu ebaluatu beharko diren zerrendatu da, hizkuntza-erabileraren normalizazioan inpaktua izan dezaketela ulertuta, eta, gainera, salbuespen-sistema zabal bat aurreikusi da. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena.

Bertan, besteak beste, atal hauek topatuko ditugu:

- Ebaluazioaren helburuak eta printzipioak
- Ebaluatu behar diren planak eta proiektuak
- Hizkuntza-azterlanaren irismena zehaztea
- Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea
- Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena

Hortaz, hasierako jarraibideak eguneratu beharrean gaude Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa 179/2019 Dekretura egokitzeke, eta horixe bera da hurrengo orrialdeetan egitera goazena.



1.

**EBALUAZIOAREN HELBURUAK,
ETA EBALUATU BEHARREKO
PLANAK ETA PROIEKTUAK**

179/2019 Dekretuak, bere 49. artikuluan, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren helburu nagusia azaltzen du; hau da, udalen egoera soziolinguistikoan era negatiboan eragin dezaketen udal-eskumeneko planak onartzeko prozeduran eta proiektuei baimenak edo gaikuntzak emateko prozeduran, euskararen erabileraren normalizazioan izan dezaketen inpaktua ebaluatzea. Jarraian, helburu zehatzagoak zerrendatzen ditu dekretuak:

- a. Udalen egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planak eta proiektuak egiteko eta onartzeko prozeduretan, eta haiei baimena edo gaikuntza emateko prozeduretan, hizkuntza-alderdiak eta euskararen erabileraren normalizazioa gehitzea.
- b. Euskararen erabilera normalizatzeko onuragarriak diren aukerak aztertzea eta kontuan hartzea.
- c. Neurriak diseinatzea, euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko.


Bestalde, 50. artikuluan, toki-erakundeek ebaluatu behar dituzten plan eta proiektu motak zerrendatzen dira. Honakoak:

Udalek behean zerrendatzen diren plan eta proiektuen eragin linguistikoaren ebaluazioa egin beharko dute, bai eta horien funtsezko aldaketenak ere, baldin eta euskararen erabileran eragina izango badute:

- a. Planak:
 - Hiri-antolamenduko plan orokorrak.
 - Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.
 - Sektorizatze-plana.
 - Plangintzako arau subsidiarioak.
 - Plan partzialak.
 - Hiri-antolamenduko plan bereziak.
 - Turismo-planak.
- b. Proiektuak:
 - Merkataritzagune handiak eraikitzeke proiektuak.
 - Industriaguneak eta teknologia-parkeak eraikitzeke proiektuak.

Aurreko zerrendan aipatutakoez gain, arnaguneetako euskararen erabileran eragina izan dezaketen plan eta proiektu guztiak ebaluatu beharko dira.

Hurrengo orrialdeetan, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaosatzen duten atal desberdinei buruzko definizioak emango ditugu; hots, bakoitza zertan datzan eta 179/2019 Dekretuak hauei buruz jasotzen duena. Horiekin batera ELE egiteko HPSk eta UEMAk proposatutako metodologiari buruzko argibideak jaso ditugu. Bukaeran, bete beharreko galdetegiak eta aplikazioa beteko erabiltzailearen eskuliburua erantsi ditugu.




2.

ELE APLIKAZIOA

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko aplikazioa duzu erabilgarri sarean <https://www.euskadi.eus/ele-aplikazioa/web01-azeleket/eu/> helbidean. Aurretik udalak bere langileentzako edo kontratatutako pertsonentzat aplikaziorako sarbidea eskatu beharko du e-mail bat bidaliz ele@euskadi.eus helbide elektronikora.

Aplikazioaren bidez, honako urratsak egin ahal izango dituzu:

Irismen dokumentua	1. Datuak sartu 2. Galdetegi laburra 3. Hautatu: Biztanleak, Turismo bisitariak edo Azpiegitura eta zerbitzuetako bisitariak 4. Bilakaera indizea kalkulatu 5. Dokumentua
Hizkuntza inpaktuaren azterlana:	1. Hizkuntza inpaktuaren intentsitatea neurtu 2. Funtsezko alderdien galdetegia 3. Ondorioak 4. Neurri zuzentzaileak 5. Txostena



3.

IRISMEN DOKUMENTUA

3.1. Zer da irismen-dokumentua?

Irismen-dokumentuak esango digu zenbaterainoko eragin soziolinguistikoa izan dezakeen eremu jakin batean abian jarri nahi den plan edo proiektuak; eta hizkuntza inpaktuko azterlana egin behar den edo ez.

3.2. Irismen-dokumentuari buruzko lege-aipamena

179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.

53. artikulua.- Hizkuntza-azterlanaren irismena zehaztea.

1.- Plan edo proiektu batek udalean edo aztertzen den eremuan euskararen erabileran eraginik eduki dezakeen aztertzerakoan, adierazle hauek kontuan hartuko dira:

- a. Aldaketak, udalerriko biztanle-kopuruan.
- b. Aldaketak, udalerria bisitatzeko dutenen kopuruan.
- c. Bestelako eraginak, udalerriaren egoera soziolinguistikoa.

2.- Adierazleok aztertu ondoren, udal-zerbitzu teknikoek hizkuntza-azterlanaren irismenari buruzko txostena bidaliko diote plan edo proiektuari funtsezko onarpena emateko eskumena duen udal-organo eskudunari.

- a. Baldin plan edo proiektuaren irismenari buruzko proposamenak ondorioztatzen badu ez dagoela hizkuntza-inpaktu esanguratsurik, hizkuntza-inpaktuaren azterlanik ez egiteko gomendatuko du.
- b. Aitzitik, hizkuntza-inpaktu esanguratsua dagoela ondorioztatzen badu, beharrezkotzat joko du hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea, datozen artikuluetan adierazitakoaren arabera.

Hizkuntza-azterlanaren irismena horretarako sortu den aplikazio informatiko baten bidez, zehaztu ahal izango da. *(erabiltzailearen eskuliburuan aurkituko ditugu jarraibideak)*

3.3. Indizeen definizioak:

EPI: Euskararen Proiekzio Indizea da plan/proiektu bat egin ondoren, euskararen ezagutzak izan dezakeen aldaketa, positiboa edo negatiboa.

HI: Hauskotasun Indizea da eremu batek egoera soziolinguistikoa aldaketa bati aurre egiteko duen gaitasuna. Eremu bat zenbat eta hauskorragoa izan, orduan eta eragin handiagoa izango du edozein aldaketak egoera soziolinguistikoa.

Aplikazioak automatikoki kalkulatu du, eta horretarako erabiltzen ditu datu hauek:

- Euskaldunen ehunekoa.
- Ama-hizkuntza euskara dutenen ehunekoa.
- Etxeko erabileraren ehunekoa.
- Euskara zerbitzurik badagoen ala ez.

- ESEP edo euskara sustatzeko eremura begirako plan orokorrik badagoen ala ez.

Datu horiek faktore bat edo balio bat ematen dute, eta horien emaitza izango da hauskortasun-indizea.

BI: Bilakaera-indizea da euskararen proiektzio-indize eta hauskortasun-indizearen arteko batuketa.

Indize honek zehaztuko du kizkuntza-inpaktuaren azterlana eta txostena egin behar den edo ez.

Negatiboa denean (emaitza -1ekoa edo gutxiago denean), hizkuntza-inpaktuaren azterlana eta txostena egin behar dira. Emaitza -0.99 edo gehiago bada, udalaren edo dagokionaren esku geratzen da txostena egin edo ez erabakitzea. Eragin positiboa denean erakundeak ezagutzen indartuko den egoera soziolinguistikoa erabilera bultzatzeko neurriak har ditzake, hizkuntza inpaktuko azterlana egin gabe. Hau da, herrian jende euskaldun gehiago egongo direla jakinik, euskararen aldeko sustapena egin dezake udalerrirako euskara planen markoaren barruan.

3.4. Datuak eta galdetegi laburra

Hasieran proiektuari dagozkion oinarritzko datuak sartu behar dira eta galdetegi laburrean eta galdetegi laburrean non eragingo duen erantzun beharko da: biztanle kopuruan, bisitari kopuruan edo bestelako eragin soziolinguistikoa izango duen. Eragin bat baino gehiago baldin baditu, adibidez, bisitari kopuruan eta biztanle kopuruan eragiten badu proiektuak, berezitatea egin beharko ditugu bi irismen dokumentuak.

3.5. Biztanleak eta bisitariak kalkulatzeko kontuan hartzekoak

Biztanleetan zein bisitarietan oinarritzko datuak, egungo biztanle kopurua zein ezagutza datua, automatikoki kalkulatu dituzte aplikazioak, baita horien jatorria ere. Oinarritzko datu estatistikoetatik hartzen dituzte datuak, eta datu xeheagoekin aritu nahi izanez gero, eskuz sartzeko aukera ematen du aplikazioak.

3.5.1. Biztanleak

Aurreikusitako etxebizitza kopurua da biztanle berrien kopurua neurtzeko oinarritzko datua. Horrekin batera, erabaki behar da etxebizitza bakoitzaren indize biderkatzailea zenbatekoa izango den. Lehenetsita 2,7 dago, baina arnaguneetan (ezagutza %80tik gorakoa den eremuetan) indize biderkatzailea 3 izatea gomendatzen du HPSk.

3.5.2. Bisitariak

3.5.2.1. Turismoa-aisia bisitariak

Horiek kalkulatzeko kontuan hartu behar da proiektua garatzearen ondorioz etorriko den bisitari berrien kopurua. Adibidez, egitura edo plaza jakinei lotutako bisitariak, adibidez, etxebizitza turistikoak, hotelak, kanpinak, autokarabanentzako aparkamenduak eta antzekoak, sartu beharreko datua hau izango da $\text{Bisitari} = (\text{plaza kopurua} \times 0,52) \times 365 / 2,1$.

Bisitari kopuru hori urteko zein garaitan etorriko den aurreikusi behar da, horretarako dauden aukerak honakoak dira: urte osoan zehar ala udan bereziki.

EAera datozen turisten batez besteko gualdia 2,1 egunekoa dela kontuan hartu behar da (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko datua). Aplikazioan indize horrekin biderkatzen du bisitarien kopurua.

3.5.2.2. Azpiegitura-zerbitzuetako bisitariak

Zerbitzuetako ekipamenduak, merkatalguneak edota industriaguneak planifikatzen diren kasuetan eguneko bisitari kopurua izango da eragina kalkulatzeko oinarrizko datua. Adidibidez, gehienezko edukiera datua, edo aurreikusitako langile kopurua, besteak beste.

Proiektuan jasotako gune edo ekipamendua herrigunetik duen distantziaren arabera, 0,3tik 0,5erako indizea aplikatuko da. Zenbat eta urrunago egon, indize biderkatzailea txikiagoa izango da. Aplikazioak 0,5 du lehenetsia. Herritik urruti baldin badago ekipamendua, 0,3ko indizea jar daiteke.

3.6. Irismen dokumentu eredua



Planaren/proiektuaren izena:	BARRUNDIAKO ETXEBIZITZA ERRESILIENTEEN ZONALDEA
Eragin eremua:	Araba - Barrundia
Teknikarien izenak:	ERABILTZAILEA ADMINISTRADOR XLNET NMOSTEIRO
Batzordearen izena:	BARRUNDIAKO ELE BATZORDEA

- **Proiektuaren helburuak hauek dira:**
BARRUNBDIA ERRESILIENTEAGOA

Planak tokiko biztanle-kopuruan/egoera soziolinguistikoan izan dezakeen eragina neurtzeko irismen-dokumentua egitea eskatu dio Barrundia(e)ko Udalak ELE batzordeari. Horregatik, plan horrek hizkuntza-inpaktuaren azterlana egiteko beharrik ote duen jakiteko beharrezkoak diren indizeen kalkuluak egin dira.

- **BIZTANLEAK:** Planaren bidez aurreikus daitezkeen biztanle berrien kopurua 1.350 (e)koa da. Kalkulu hori egiteko kontuan hartu dira 500 etxebizitza eta aurreikusi da etxebizitza bakoitzera 2,70 pertsona etorriko direla bizitzera.

Hori oinarri hartuta, hauek izan dira indizeen emaitzak:

	Biztanleak
Euskararen proiektzio-indizea	-6,07
Hauskortasun-indizea	8,00
Hauskortasun indizearen eragina	1,00
Bilakaera indizea	-5,07
Bilakaera indize orokorra	-5,07

· **BIZTANLEAK: Bilakaera indizearen -5,07 puntuko emaitza aintzat hartuta**, hizkuntza inpaktuaren azterlana egin behar dela jakinarazten dizuegu. Irismen-dokumentu hau planaren espedienteari gehituko zaio, balioa izan dezan.

Teknikariaren sinadura

1. IRISMEN-DOKUMENTU EREDUA

Planaren/proiektuaren izena: _____

Eragin eremua: _____

Teknikarien izenak: _____

Batzordearen izena: _____

_____ izeneko proiektu/egitasmoaren helburua da:

Plan/proiektu horrek tokiko biztanleria kopuruan/bisitari kopuruan/ egoera soziolinguistikoan izan dezakeen eragina neurtzeko irismen-dokumentua egitea eskatu dio _____ Udalak -----
-Batzordeari. Horregatik, plan/proiektu horrek hizkuntza-inpaktuaren azterlana egiteko beharrik ote duen jakiteko beharrezkoak diren indizeen kalkulua egin da.

Plan/proiektu horren bidez aurreikus daitekeen biztanle/bisitari berrien kopurua _____(e)koa da. Hori oinarri hartuta, hauek izan dira indizeen emaitzak:

Euskararen proiektzio-indizea: _____

Hauskortasun-indizea: _____


Bilakaera-indizea: _____

Emaitza horiek aintzat hartuta, _____ plan/ _____ proiektuaren gaineko hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin behar du/ez du egin beharrik.

Irismen-dokumentu hau plan/proiektuaren espedienteari gehituko zaio, balioa izan dezan.

Lekua, eta data

Teknikariaren sinadura



4.

HIZKUNTZA-INPAKTUAREN AZTERLANA

4.1. Zer da hizkuntza-inpaktuaren azterlana?

Irismen-dokumentuak plan edo proiektu batek eremu jakin bateko egoera soziolinguistikoan eragin negatiboa izango duela ondorioztatuz gero, eragin horren neurria kalkulatzeko azterlana da.

Prozesu honetan garrantzitsua izango da **Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko Batzordea (ELE Batzordea)** eratzea, galdetegiak bete eta neurri zuzentzaileak proposatzeko. ELE Batzordea diziplina anitzeko kideek osatzea gomendatzen da: gaian aditua den pertsona (arkitekto, turismo teknikari, kultura teknikari...), udal ordezkari eta hizkuntza-normalizazioan aditua den profesionala, besteak beste.

4.2. Hizkuntza-inpaktuaren azterlanari buruzko lege-aipamena

179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.

54. artikulua.– Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea.

Udal-zerbitzu teknikoek egingo dute hizkuntza-inpaktuaren azterlana, zeinak alderdi hauek, gutxienez, aztertuko baititu:

- a. Planaren edo proiektuaren azalpen orokorra eta garatzeko beharko den denboraren gaineko aurreikuspenak.
- b. Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatearen kalkulua. Inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko, aldagai hauek hartuko dira kontuan:
 - Bizitza sozialaren eta kulturalaren gaineko inpaktua.
 - Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-gaitasuna.
 - Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-erabilera.
 - Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko komunikazioa.
 - Eraginpeko eremuko hizkuntza-paisaia.
 - Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko hizkuntza-eskaintza.
- c. Funtsezko alderdiei buruzko azterketa. Honako eremu hauek kontuan hartu behar dira:
 - Plan edo proiektu motaren ezaugarriei buruzkoak.
 - Planaren edo proiektuaren denbora- eta espazio-dimentsioak.
 - Kokapenari buruzkoak.
 - Planteatu diren hizkuntza-erabilerari buruzko irizpideen gainekoak.
- d. Konpentsazio-neurriak.
- e. Neurri zuzentzaileak.

Azterlana egin ondoren, informazioa jendaurrean jarriko da eta interesdunei kontsulta egingo zaie.

55. artikulua.– Informazioa jendaurrean jartzea, interesdunei kontsulta egitea eta entzunaldia.

- 1.– Plana edo proiektua onartzeko funtsezko prozedura jendaurrean jartzen den aldi berean, hizkuntza-inpaktuaren azterlana jendaurrean jartzeko izapidea ere egingo da.
- 2.– Gainera, jendaurreko informazioaren izapidea egiten den bitartean, plan edo proiektuari funtsezko onarpena emateko eskumena duen udalak kontsultak egingo dizkie Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailari eta interesdunei. Kontsultak jakinarazpen baten bidez egingo dira, honako informazio hau gutxienez adierazita:
 - a. Hizkuntza-inpaktuari buruzko azterlana, edo non kontsultatu daitekeen.
 - b. Txostenak eta ebaluazioak zer organori bidali behar zaizkion.
 - c. Planaren edo proiektuaren gaineko informazio garrantzitsua eskuratzeko modua.
- 3.– Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailak hogeita hamar egun balioduneko epea edukiko du, udalak egindako hizkuntza-azterlanaren gainean txosten bat egiteko. Era berean, interesdunek epe bera izango dute alegazioak formulatzeko. Epea zenbatzen hasiko da jakinarazpena hartzen denetik aurrera.
- 4.– Hamar egun balioduneko epean entzunaldia emango zaio sustatzaileari, baldin pertsona pribatua bada, eta interesdunei ere bai, horrelakorik badago. Epea zenbatzen hasiko da informazioa jendaurrean jartzeko eta Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailari eta interesdunei kontsultak egiteko izapidea amaitzen denetik aurrera. Jasotako txostenak eta alegazioak bidaliko dizkio funtsezko organoak sustatzaileari, jakinaren gainean egon dadin.

4.3. Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko galdetegiko hizkuntza-aldagaien eta azpiatalen definizioak

4.3.1. Hizkuntza-aldagaien definizioak

- **Komunitatearen kultur eta gizarte bizitza:** proiektua edo plana egingo den tokiko komunitatearen (biztanleak, erabiltzaileak, langileak...) ohiturak dira: aisialdia dela, espresio kulturalak direla, harremanak izateko moduak, herritik kanpora joateko joerak... **Bereziki, ahozko komunikazioan eragina izan dezaketen ohiturak dira.** Arlo horretan izango duen eraginaren gaineko datuak zehaztu behar dira hemen.
- **Euskararen ezagutza:** proiektu edota planaren eraginez tokiko komunitatearen (biztanle, erabiltzaile, langile...) **euskararen ezagutza-tasa aldatuko ote den** aztertu nahi da aldagai honen bitartez. Hainbat faktore egon daitezke aldaketa aurreikusteko: etxebizitzak ugaritzea, bide-azpiegiturak aldatzea, zerbitzuak ugaritzea, lantegiak eraikitzea... Arlo horretan izango duen eraginaren gaineko datuak zehaztu behar dira hemen.
- **Euskararen erabilera:** proiektu edota jardueraren eraginez tokiko komunitatearen (biztanle, erabiltzaile, langile...) **euskararen erabilera-tasa aldatuko ote den** aztertu nahi da. Hainbat faktore egon daitezke aldaketa aurreikusteko: biztanleak, bisitariak, erabiltzaileak, langileak edo bestelako jende-multzoren bat ugaritzea; eta aldi berean, eskainiko diren zerbitzuetan euskara aintzat ez hartzea. Arlo horretan izango duen eraginaren gaineko datuak zehaztu behar dira hemen.

- **Hizkuntza-paisaia:** paisaia horretan ikus edo entzun dezakegunak osatzen du hizkuntza-paisaia; beraz, elementu horiek idatziak edo ahozkoak izan daitezke.
 - Idatziak: errotuluak (eraikin barrukoak edo kanpokoak izan daitezke), kartelak, seinaleak, webgunea...
 - Ahozkoak: bozgorailuetatik entzuten duguna, musika...

Arlo horretan izango duen eraginaren gaineko datuak zehaztu behar dira hemen.

- **Komunikazioak:** kanpora begirako zerbitzuen/adierazpenen **komunikazioetan hizkuntzari dagokionez nola jokatu den** eta ordura arteko egoeran aldaketarik eragingo lukeen aztertuko da. Komunikazio horiek izan daitezke ahozkoak zein idatzizkoak. Arlo horretan izango duen eraginaren gaineko datuak zehaztu behar dira hemen.
- **Jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintza:** zerbitzuetan edo jardueretan euskarazko eskaintzak izango duen **presentzia** eta ordura arteko egoera aldatuko ote lukeen aztertu nahi da. Arlo horretan izango duen eraginaren gaineko datuak zehaztu behar dira hemen.

4.3.2. Hizkuntza-aldagai bakoitzaren azpiatalak

Eragina proiektua egiten ari den artean: hirigintza-proiektuetan eraikuntza fasea izango da garai hau. Turismo- zein kultura-planetan, planak berak irauten duen aldia izango da.

- **Eragin mugatua:** eragina herriko gunee batean soilik nabaritutako bada, eragina mugatua dela esango dugu.
- **Eragin hedatua:** eragina herri osoa hedatuko bada, eragina hedatua dela esango dugu.

Adibideak

• Merkataritza-gune berri bat egingo da eta eraikuntza garaian langileak herrira ez direla gerturatuko aurreikusten dugunean. • Segurtasunari lotutako kartelak obrak egingo diren gunean soilik jarriko direnean. • Turistak herritik kanpo dagoen gunee batera joango direnean eta herrira ez direnean hurbilduko.	Eragin mugatua
• Obra garaian langileak bazkaltzera herrira etorriko direnean. • Etxebizitzaren promozioa herri osoan zein inguruetara zabalduko denean. • Bisitariak herri osoan zehar ibiliko direnean.	Eragin hedatua

Eragina proiektua egin eta gero: hirigintza proiektuen kasuan, eraikuntza garaia pasatu eta geroko aldia izango da. Bisitari zein biztanle berriak herrira etorriko diren fasea izango da, eta horrek ekarriko duen aldaketa. Turismo- zein kultura-planetan, plangintza aldia bukatu eta herrian horrek utziko duen ondorioa izango da.

- **Eragin mugatua:** eragina herriko gune batean soilik nabarituko bada, eragina mugatua dela esango dugu.
- **Eragin hedatua:** eragina herri osoan nabarituko bada, eragina hedatua dela esango dugu.

Adibideak:

• Industrialde bat eraiki eta bertara lanera etorriko diren langileak ez direnean herrira hurbilduko. • Etxebizitzan behealdean lokal komertzialak egongo direnean eta hizkuntza-paisaia eragina izango duenean. • Bisitariak herrikanpo dagoen gune batera soilik etorriko direnean.	Eragin mugatua
• Auzune berri bat eraikiko da, eta bertara bizitzera etorriko direnek herriko zerbitzuak erabiliko dituztenean. • Bizilagun berriak herriko elkarteetan integratu daitezkeela aurreikusten dugunean. • Bizilagun berriek herritarrei zerbitzuak eskainiko dizkietela aurreikusten dugunean.	Eragin hedatua

Eragina denboran zehar

- **Noizbehinkako eragina:** eragina garai batzuetan soilik nabarituko denean, eragina noizbehinkakoa izango dela esango dugu.
- **Eragin etengabekoa:** eragina egunerokoan nabarituko denean, eragina etengabekoa izango dela esango dugu.

Adibidez:

• Bisitariak urteko garai batzuetan soilik etorriko direnean (oporaldietan, asteburuetan... esaterako)..	Noizbehinkako eragina
• Biztanle berrien eragina egunerokoa izango denean. • Bisitarien eragina egunerokoa izango denean.	Eragin etengabekoa

4.4. Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko galdetegia erantzuteko argibideak

- Lehenengo pausoa izango da plan/proiektuak hizkuntza-aldagai bakoitzean eragina izango duen, BAI edo EZ, balioestea. Aukeretako batean BAI aukeratuz gero, bestean ezin izango da ezer idatzi.

- b. Ondoren, "+" / "-" zeinuak erabiliko ditugu eragina hizkuntzarentzat onuragarria edo kaltegarria izango den adierazteko. Onuragarria izango bada, "+" zeinua jarriko dugu; aldiz, kaltegarria izango bada, zeinua "-" izango da.
- c. Intentsitatea neurtzeko **BAXUA/ERTAINA/HANDIA** terminoak erabiliko dira. Intentsitate-maila aurreikustea Balorazio Batzordearen erabakia izango da. Diziplina anitzeko adituen ikuspegia eta jakintza oso garrantzitsuak izango dira balorazio-lan hau egiterakoan, beraz. Bisitari zein biztanle ehunekoaren igoera giltzarria izango da intentsitate-maila erabakitzeko. Hizkuntza-paisaiari lotutako adierazleen kasuan, sortuko diren gune zein lokal berrien kopurua erabakigarria izango da intentsitatea baloratzerakoan, adibidez.
- d. AZALPENA: erantzuna hobeto azaltzen laguntzeko balio du atal honek.
- e. BALIOAK kalkulatzeko, aplikazioak eragiketak automatikoki egingo ditu.

Argibide moduan, honakoak dira aplikazioak ematen dituen balioak:

INTENTSITATEA	BALIOA
BAXUA	1
ERTAINA	2
HANDIA	4

*Intentsitatearen balioa 0 baino txikiagoa bada, eragina positiboa dela esan nahi du.

Proiektua egiten ari den artean; hots, etxebizitza, azpiegitura, ekipamenduak eraikitzen ari diren garaian. Turismo-plan baten kasuan, turismo-plana indarrean dagoen garaia izango da:

ERAGINAREN INDIZE OSOA

Eraginaren indize osoa kalkulatzeko, galdera nagusien batez bestekoa aterako da; baina, kasu honetan ere, galdera bakoitzaren pisua ezberdina izango da. Kalkulu hori aplikazioak egingo du automatikoki.

Eraginaren intentsitatea: komunitatearen kultur eta gizarte bizitza+ (ezagutza x 2) + (erabilera x 3) + hizkuntza-paisaia + komunikazioa + eskaintza.

INTENTSITATEA	BALIOA
GARRANTZI GUTXIKOA	1-54
MODERATUA	55-108
LARRIA	109-162
KRITIKOA	163-216

4.5. Funtsezko alderdien galdetegiari buruzko argibideak

Plan/proiektuak hitzun-kopuruan eragina izango duela behin baieztatuta, eta eraginaren intentsitatea kalkulata, proiektu batek jaso beharreko funtsezko alderdiez galdetuko da. Galdetegian, euskararen erabilera eta ezagutza zaintzeko, esku-hartzearen arabera kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak jaso dira. Funtsezko alderdi horiek proiektuaren eragina saihesten

edo murrizten lagunduko dute. Batzuk, zuzenean ezagutza eta erabilerari lotutakoak izango dira; eta, beste batzuk, zeharkakoak, komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitzari zein elkarbizitzari lotuago daudenak. Esaterako, komunitate-bizitza osasuntsu batek erabilera bera handitzen lagunduko du.

Euskararen ezagutzaren eta erabileraren bilakaera ezagutzeko, adierazle nagusiak biztanle/bisitari kopurua aldatzea, edota horien ohiturak aldatzea izango da. Kopuru hori aldatzea edota ohiturak aldatzea eremu horretan egingo diren esku-hartzeen eraginez gertatuko da: dela etxebizitzaren eraikuntza, espazio publiko irekiak eraberritzea edo berriak egitea, ekipamenduak eraikitzea, espazio irekien eta ekipamenduen arteko mugikortasuna aldatzea, jarduera ekonomiko berriak sortzea, jarduera soziokultural berriak sustatzea, turismo-planak sustatzea eta abar.

Planak/proiektuak garatzerako orduan, hizkuntzaren alderdia ere aintzat hartzea funtsezkoa izango da. Hizkuntzan eragina izango duen mugatzaile bakoitzeko hirigintza-garapenari zein hizkuntzari estuki loturiko funtsezko alderdiei buruz galdetuko da jarraian dagoen galdetegian. Helburua da, plan/proiektu bat garatzean, funtsezko alderdi horiek zeintzuk diren kontuan hartzea, eta baloratzea ea plangintzak, egitasmoak berak, horiek barne biltzen dituen. Funtsezko alderdi batzuek ez dute zuzenean bermatuko euskararen ezagutza eta erabilera, baina lagunduko dute komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitza osasuntsuago bat garatzen. Izan ere, ezagutza eta erabilerarekin batera, komunitate-bizitza osasuntsua izateak lekuan lekuko hizkuntza-erabilerari eta -ezagutzari eusten lagunduko dio. Alderantziz ere gertatzen da: erabilera indartzeak komunitate-bizitza ere indartu dezake.

Funtsezko alderdiak bost ataletan banatu dira: izaera, dimentsioa, lekukotzea, hizkuntza-irizpideak, neurri osagarri/aringarriak.

- **Proiektuaren/planaren izaerari lotutakoak:** etxebizitzaren tipologia, espazio publikoen funtzio eta erabilera mota, ekipamenduen kudeaketa eredua eta garapen sozioekonomiko zein soziokulturalaren eredua euskararen garapen positiborako egokiak ote diren aztertu nahi du funtsezko alderdi honek.
- **Proiektuaren/planaren dimentsioari (espazioan eta denboran) lotutakoak:** proiektuak ekarriko duen hazkundera, berau garatzeko beharko den denbora eta okupatuko duen espazioa hizkuntzaren garapen positiborako egokiak ote diren jasotzen du.
- **Proiektuaren/planaren lekukotzeari lotutakoak:** proiektua edo jarduera garatuko den lekua euskararen garapen positiborako egokia al den aztertu nahi da alderdi honetan.
- **Proiektua/plana garatzeko ezarritako hizkuntza-irizpideei lotutakoak:** proiektuari/jarduerari mota desberdinetako (ahozkoak, idatzizkoak, kontrataziotarako...) hizkuntza-irizpideak ezarri ote zaizkion jaso nahi da.
- **Proiektuaren/planaren kaltea konpentsatzeko proiektu/ jarduera osagarriak (neurri aringarriak):** garatuko den proiektuaz gain, horrek sortuko duen kaltea murrizteko bere baitan bestelako plan edo proiektu osagarriak aurreikusi ote diren aztertu nahi da.
- **Izaera, dimentsioa eta lekukotzeari** lotutako alderdiak bost jarduera nagusitan banatuta daude:

Garatuko den plan/proiektuaren arabera beteko da galdetegia. Hau da, horietako jarduera bakarra garatuko bada; demagun, etxebizitzak soilik eraikiko direla, etxebizitzari dagokion galdetegiaren

zattia soilik beteko da. Aldiz, etxebizitza, ekipamenduak eta espazio libreak eraikiko badira, hiruei dagokien galdetegia beteko da.

Hizkuntza-irizpideei eta jarduera osagarri/aringarriei lotutako alderdiak orokorrean galdetuko dira, jarduera edozein dela ere.

Hizkuntza Funtsezko Alderdiak erlaitza beti bete behar da.

GALDETEGIA ERANTZUTEKO ARGIBIDEAK:

Galderak erantzun hauek emateko prestatuta daude:

- **BAI:** planak/proiektuak jardunbide egokia barne hartzen du.
- **EZ:** planak/proiektuak ez du jardunbide egokia barne hartzen.
- **EZ DAGOKIO:** ez dagokio edo planean/proiektuan ez da aplikatzen.
- **AZALPENA:** erantzuna hobeto azaltzen laguntzeko balio du.
- **ERAGINAK HIZKUNTZAN:** funtsezko alderdiak hizkuntzan zein eragin positibo izango duen jasotzen du.

4.6. Neurri zuzentzaileak

Behin diagnostikoa eta aurreikuspena eginda, edota funtsezko alderdiei buruzko azterketa egiten denean, azaldu diren eragin posible horiek murrizteko zein neurri zuzentzaile proposatzen zaien azaltzeko urratsa da. Horretarako, aplikazioan proposatzen den neurri zuzentzaileen karta kontuan hartzea gomendagarria izango da. Hala ere, berriak ere gehitu daitezke.



5.

ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTENA

5.1. Zer da Eragin Linguistikoaren Ebaluazioari buruzko Txostena?

Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin ondoren osatuko den txostena da. Hor, besteak beste, hauek jasoko dira: proiektu edo planaren deskribapena, prozeduran izandako izapideen laburpenak, hizkuntza- inpaktuaren azterlanaren laburpena, neurri zuzentzaileak, jarraipen sistema...

5.2. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioari buruzko lege-aipamena

179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.

56. artikulua.– Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena.

1.– Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostenean datu hauek, gutxienez, bilduko dira:

- a. Planaren edo proiektuaren sustatzailea edo funtsezko organoa zehaztea, eta planaren edo proiektuaren deskribapena.
- b. Informazioa jendaurrean jartzeko eta Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailari eta interesdunei kontsultak egiteko izapideen emaitzen laburpena, bai eta horiek kontuan hartzeko moduaren azalpena ere.
- c. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organismoak egin duen azterketa teknikoaren laburpena.
- d. Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko ezarri beharko liratekeen baldintzak eta neurriak, beharrezkoa denean.
- e. Jarraipena egiteko sistema eta, beharrezkoa bada, jarraipen-batzordea.

2.– Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena egiteko epea hilabetekoa da, kontsultarako epeak amaitutakoan zenbatzen hasita. Eta, plana edo proiektua onartzeko funtsezko prozedura amaitu aurretik, hizkuntza inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena erantsi beharko da.

5.3. Txostena egiteko eskema proposamena

Txostena aplikazioak egiten badu ere, badago aukera eskuz egiteko ere, aplikazioak ematen dizkigun indizeak aintzat hartuta. Kasu horretan, honakoa izna daiteke txostena egiteko eskema proposamena:

Sarrera

Txostenaren helburua azalduko da hemen, eta eremuko datu esanguratsuenak emango dira. Azterlana egiteko beharra eta oinarri juridikoak ere aipa daitezke sarrera gisa, labur.

a. Proiektuaren/planaren deskribapena:

- Planaren edo proiektuaren sustatzailea edo funtsezko organoa zehaztuko da.
- Proiektuaren helburua zein den azalduko da.
- Proiektua edo plana bera deskribatuko da.

- Proiektu edo planaren denbora-aurreikuspenak xehatuko dira.

b. **Egindako esku-hartzeak jasoko dira atal honetan:**

- Informazioa jendaurrean jartzeko izapideen emaitzen laburpena.
- Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailari eta interesdunei kontsultak egiteko izapideen laburpena.
- Aipatutako bi esku-hartze horiek kontuan hartzeko moduaren azalpena. **Hizkuntza-inpaktuaren azterketa teknikoaren laburpena:**
- Erabilitako metodologia.

c. **Eragin linguistikoaren ebaluazioaz arduratu den udal-organoaren deskribapena** hots, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioko batzordean parte hartu duten kideen deskribapena.

- Egindako ebaluazio-lanaren ibilbidea.
- Jasotako datuak zeintzuk izan diren.

Kontuan hartzekoak diren datuak honakoak dira: datu demografikoak, soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak. Kasuan kasu aztertu beharko da zein informazio jasotzea den egokiena.

- **Demografikoak:** biztanle-kopurua; biztanle-kopuruaren bilakaera; biztanleen jatorria; herrira etorriko diren biztanle edota bisitariei buruzko daturik izatekotan, hauek ere jasotzea garrantzitsua da
- **Ekipamenduak eta azpiegiturak:** kultura-etxea, anbulatorioa, ikastetxeak, parkeak, bidegorriak, aisialdirako guneak, zinema, txokoak, gazteen lonjak.
- **Adierazle linguistikoak:** euskararen gaitasuna, euskararen erabilera, etxeko hizkuntza, lehen hizkuntza; adinaren, generoaren eta jaioterriaren arabera.
- **Euskararen inguruko egituraketa eta baliabideak:** euskara-planak, euskara zerbitzuak, araututako irakaskuntza, komunikazio-hizkuntza.
- **Sozioekonomikoak:** tokiko ekonomia jarduerak, langabezia-tasa.

Azterketa teknikoaren laburpena jasoko da. Laburpenak metodologiako hiru puntuak jasoko ditu: Irismen-dokumentua, Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatea, Funtsezko alderdien galdetegia.

d. **Ondorioak eta neurri zuzentzaileak**


Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko ezarri beharko liratekeen baldintzak eta neurriak jasoko dira hemen.

Aztertutako adierazleen indizeak eta informazio osagarria eskaintzen diguten indizeak jasota, ondorio orokorrak aterako dira:

- Eragin-mailaren balorazioa.
- Adierazle kritikorik dagoen ala ez.
- Proposatutako neurri zuzentzaileak.
- Lehenetasunez neurri zuzentzaileak non jarri beharko liratekeen, eta abar.

e. **Jarraipen sistema:**

Jarraipena egiteko sistema eta, beharrezkoa bada, Jarraipen Batzordearen berri eman behar da.



6.

SUSTAPEN NEURRIAK

Irismen-dokumentuak, plan edo proiektuak gune jakin batera ekarriko duen biztanle edo bisitarien kopurua aintzat hartuz, bilakaera indizea kalkulatzen du. Emaizaren arabera, hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin edo ez gomendatzen du.

Gune ez hain euskaldunetan, plan edo proiektuak hizkuntzaren egoeran izango duen eragina negatiboa dela ateratzeko datorren biztanle edo bisitari kopuruak oso altua izan behar du; beraz, egoera askotan irismen-dokumentuak azterlanarekin jarraitu beharrik ez izatea ekarriko du, hizkuntzari lotutako inolako neurririk hartu beharrik gabe.


Plan eta proiektuek, ordea, egoera soziologikoan eragiten duten heinean, beti dute egoera soziolinguistikoan eragiteko ahalmena, batzuetan onerako, eta besteetan txarrerako.

Proposamen honen helburua da irismen-dokumentuaren arabera eragin linguistiko kaltegarriak izango ez duten plan eta proiektuak, euskararen mesedetara bideratzea eta horretarako sustapen neurriak ezartzea.



7.

ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA EGITEKO PROZEDURA



Hirigintza planen prozeduraren barruan ELE nola txertatu



HIRIGINTZA PLANEN PROZEDURAREN BARRUAN ELE NOLA TXERTATU

HIZKUNTZA INPAKTUKO
AZTERLANA EGIN BEHARRA
JUSTIFIKATZEN DUEN UDAL-
TXOSTENA
IRISMEN DOKUMENTUA
BARNE DUENA

53
ARTIK

HIZKUNTZA
INPOAKTUAREN
AZTERLANA ETA
PLANAREN EDO ARAU
SUBSIDIARIOEN
HASIERAKO
ONARPENAREN
PROIEKTUA EGITEA

54
ARTIK

HPS eta UEMA

7

HIRIGINTZA PLANEN PROZEDURAREN BARRUAN ELE NOLA TXERTATU

HASIERAKO ONARPENA

INFORMAZIO PUBLIKOAREN ETA KONSULTEN
IZAPIDEAREKIN BATERA, HIZKUNTZA INPAKTUKO
AZTERLANARI BURUZKO TXOSTENA ESKATZEA
NORMALIZAZIO LINGUISTIKOAREN ARLOAN
ESKUMENAK DITUEN EUSKO JAURLARITZAKO
SAILARI, ETA INTERESDUNEI KONSULTA EGITEA.
EPEA. 30 EGUN BALIODUN


55
ARTIK

HPS eta UEMA

8



7.1. Hirigintza planen prozeduraren barruan ELE noiz txertatu





8.

ERANSKINAK

8.1. Intentsitatearen balioak

Proiektua egin bitartean	
Eragin mugatua	intentsitatea/2
Eragin hedatua	intentsitatea x 1

Proiektua egin eta gero:	
Eragin mugatua	intentsitatea x 2
Eragin hedatua	intentsitatea x 3
Eragin noizbehinkakoa	intentsitatea x 1
Eragin etengabekoa	intentsitatea x 2

Galdera nagusien intentsitate-maila baloratzeko, ondorengo baremoak hartuko dira kontuan:

1, 4., 5. eta 6. galderak:

INTENTSITATEA	BALIOA
ERAGIN POSITIBOA	0-tik behera
BAXUA	1-6
ERTAINA	7-15
HANDIA	16-24

2. Galderan horrela:

INTENTSITATEA	BALIOA
ERAGIN POSITIBOA	0-tik behera
BAXUA	1-12
ERTAINA	13-30
HANDIA	31-48

Eta 3. Galderan, horrela:

INTENTSITATEA	BALIOA
ERAGIN POSITIBOA	0-tik behera
BAXUA	1-18
ERTAINA	19-45
HANDIA	46-72

8.2. Hizkuntza inaktuaren intentsitatea kalkulatzeko galdetegia

	BAI/EZ	+/-	INTEN	BALIOA	AZALPENA
1. Komunitatearen kultur eta gizarte bizitzan (harreman sareak aldatzea, harreman ohiturak aldatzea, kultur espresioak aldatzea, elkargune berriak sortzea, kultur agenda aldatzea)					
1.1 Eragina proiektua egiten ari den artean					
1.1.1. Eragina mugatua: eragina proiektua garatuko den lekuan soilik nabaritutako da					
1.1.2. Eragina hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
1.2. Eragina proiektua egin eta gero					
1.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektua garatuko den lekuan soilik nabaritutako da					
1.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
1.3. Eragina noizbehinkakoa izango da					
1.4. Eragina etengabekoa izango da					
2. Tokiko euskararen ezagutzan					
2.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabaritutako da?					
2.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua garatuko den lekuan soilik nabaritutako da					
2.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					

	BAI/EZ	+/-	INTEN	BALIOA	AZALPENEA
2.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
